AMA

Chant traditionnel Basque

Maitatua sobera nintzelarik haurra,ez nakien nik zer zen amaren beharra;
bortu batean orai naiz bakar bakarra,hartaz orhoitorduko heldu zaut nigarra.
Hegalñoak azkartzen sendituz geroztik,baitoazi xoriak ohantze gozotik,
halaber joan ninduzun amaren altzotik...ahantzia bainute herrian engoitik!

Bainan ama gaixoak ez nu ez ahantzi:maiz daut Eskual Herritik igortzen goraintzi:
hautsi nion bihotza, nuenean utzi; neretzat baizik ez da halere han bizi.
Bero daukat nik ere bihotzean garra, Jinkoak piztu zauntan eskualdun pindarra!!
ama baitut oraino minetan indarra,ama, gau ilhunean, argidun izarra!!!

Nere bortu gainetan baniz enoatzen, gaizkirat balinbazaut bihotza lerratzen,
zure begi garbiez, ama, naiz orhoitzen,eta lanari gero kuraiekin lotzen!
Oi maiz ametsetarik izan dut gogoan goxoki nindagola lehen ohakoan,
aingeruer begira, ganbera xokoan,eta, zu hantxet irriz, ama, ner'ondoan!

Frangotan huts ohiez orhoitzen ere niz...ama, gazte denbora berriz haste balitz!
nigar egin-arazi dautzut anhitz aldiz,nigarrak niri zauzkit jauzten orai borthitz!
Aspaldi du naizela sor-etxetik joana,hamargarren urthea hurbil iragana:
noiz othe naiz hemendik jinen zure gana, ama, saristatzerat zor dautzutan lana?

Untziak noiz nu berriz horrat eremanen?etxerako bidexka noiz dut nik iganen?
eta zutarik, ama, musu bat ukanen?oi! ba laster dautazu agian emanen!
Aho batek eztiki diolarik: Ama! hitz goxo bakar horrek mundu bat derama...,
ama baino hoberik zer ditake asma?haren maithatzen beraz gaiten oro thema.

Avril 1911

AMA (avec harpe)

Arrangements: Jacques Ballue

Traditionnel

Copyright © J.Ballue

18
Hp.
T. 1
T. 2
Bar.
B. 2
ze la sor - et - xe - tik joa - na ha - mar - gar - ren ur - te - a hur - bil i - ra - ga -
24
(tutti avec paroles à la reprise..)
piu f
na Naiz o - the naiz he - men - dik ji - nen zu - re ga -
28
rit.
na A - ma sa - ri - sta - tze - rat zor dau - tzu - tan la - na

Partitura hau Euskal kultur erakundeak eta Iparraldeko Abesbatzen Elkarteak antolatu duten sareko bildumatik deskargatua izan da. **Baliatu aitzin, aholkatzen dizugu http://partiturak.eke.eus orrian bilduak diren garrantzizko zehaztasunak artoski irakurtzea.**

Gurekin harremanetan sartzeko, milesker partiturak@eke.eus helbidera idazteaz.

Cette partition a été téléchargée depuis la partothèque en ligne mise en place par l'Institut culturel basque et la Fédération des Chœurs du Pays Basque. **Nous vous recommandons de lire attentivement les précisions importantes détaillées sur la page http://partitions.eke.eus avant de l'utiliser.**

Pour joindre les personnes contribuant à l'édition et à la mise en ligne des partitions de la partothèque merci d'écrire à l'adresse partitions@eke.eus.